



ZABALA taberna-jateetxea. Eraberritze eta handitzea. Kokapena: Mateo Moraza kalea, 9. Gasteiz. Arkitektoak: Roberto Ferrero Cifuentes eta Bruno Oveja Barrutieta. Data: 2008-2009. Argazkiak: Victor Antón

Barnealdea erakusleihu denean

EHn barne-diseinuak nolabaiteko loraldia izan du aurreko hamarkadan. Azpimarragarria da tabernen itxura-aldaketa. Barne-diseinu «estranbotikoak» diru beltza zuritzeko erabili izan ohi ziren, esamesen arabera. Ezagun izango duzue kasu hau: kontratista txiki batek (ez du zerikusirik burges txiki terminoarekin), eraikuntzako beheraldiari aurre egin nahian, bere jarduera-sektorea dibertsifikatu nahi izaten zuen. Nahiz eta egunkariak gutxi irakurri, ekonomia-orri laranja hori bera gomendatzen zuten eta. Eta zer eta taberna bat martxan jartzea erabaki zuen gure kontratista txikiak. Hori bai, modernoa eta luxuz bete. Aurrekontuak ez zuen garrantzirik. Material sintetiko berriak, altzairu bereziak, egur tropikalak, argiztapen ikusgarriak, geometria sinestezinak... A zer festa tabernan! Horrek, aberats berrien estetika bat plazaratu du. Eta EHko edozein txokotan benetan nabaria da.

Esamesak albo batera utziz, barne-diseinuaren loraldi honek akats batzuk plazaratu dituela esan daiteke. Esate baterako, material edota elementu ikusgarriak edo garestiak ezartzeak ez du beti arrakasta ziurtatzen.

Alde batetik, elementuen konbinazio okerrak funtzionamendua oztapa dezake. Adibide soil bat: nahiz eta iturri eta arraska garestiak izan itxuraz, ez badatoz bat, eskuak garbitu ezinik edota prakak bustita buka dezakezu.

Bestetik, barne-diseinu ikusgarri-garestiak ez du zertan barne-funtzionamendua hobetu edo jarduera ekonomikoa efizienteagoa egin. Esan nahi baita, denda, taberna edota banku «espektakuluzaleek» besteek baino mozkin handiagoak ez dituzte ekoizten.

Zergatik azaleratu dira arazo hauek? Arrazoi ugari izan daitezke. Bat aipatzearen: tradizioz edo ofiziorik gabeko jendea masiboki aritu da barne-diseinugintzan, negozioa egin nahian. Prestakuntza desegokiko jendearekin lan egin ez gero, kalitateak jasaten du. Eta orain, loraldia zimeldu denetik, merkatua berregokitu egin da. Eta gerta daiteke gain-prestatuak jendea lanik gabe aurkitzea.

Gehiegizko itxurakeria herri-mailako izaera baten erakusgarria izan daiteke. Beste herrialde europar batzuekin konparazioa egiten badugu, erraz ikus dezakegu barne-diseinu berri eta ponpoxoak lortzeko nahia nabaria dela gurean. Eta joera hori gure gizartearen beste hainbat sektoretan ikus dezakegu. Itxurak (edota tamainak) garrantzia du, baina irizpideduna eta beharrei egokiturikoa ote da? Eta are gehiago, beharrez gaindi eraikitzen ote ditugu gure eraikin eta azpiegiturak?

Krisia dela eta ez dela, barne-diseinuak gogor jo duen sektorea da eta denboraldi batean ez dira diseinu berriak ikusiko gurean. Gauza apalagoak egingo direla uste duzue etorkizunean? Krisiaren biharamunak utziko ote digu gauzak lasaiago ikusten?

